TOKIKOM

# noaua

#Gattunk DVD-a jarri dute salgai

Xabi Olano eta Garazi Iturralde, onenen artean Kayak Surf txapelketan

"Laboaren Uztaila" zikloan, Mara bakarlariaren txanda




# Kilometroetan, gazteen arteko Erronka

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

**Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak**

Administrazioa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**MATRIKULA ZABALIK uztailaren 16tik 21era**



Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 € tik**



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
**Agerreazpin**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Altxorren pare zainduak

Garai bateko ibilgailuak, baina guztiak ere ederki asko zainduak. Ibilgailu klasikoek ere zaletuak badituzte eta ez gutxi. Ikusi bestela, aurreko larunbatean frontoian eta Dema plaza inguruan estreinakoz ospatu zen denetariko ibilgailu klasiko eta historikoen topaketan bildu zirenak. Ikusmina sortu zuten.










**Ikusmin handia piztu zuen Ibilgailu Klasikoen Topaketak. Garai bateko autoak gertutik ikusteko aukera izan zuten larunbatean Dema plazara hurbildu zirenek.**

## Laburrean

### Irteera bete hilabete, Gaztelekuko gazteentzat

Uztailak 16: Zarauzko hondartzara DBH1 taldekoekin.
Uztailak 20: Igeldora DBH2 taldekoekin.
Uztailak 21: Kars-etara DBH2 taldekoekin.
Informazio gehiago eta izen emateko: Gaztelekuan edo gaztelekua@usurbil.eus

### Igande honetan, erreusaren bilketa

Aurrerantzean, bi astez behin batuko dute erreusa. Erreusa etxe ataria noiz atera dezakezuen jakiteko, Udalak bilketa egutegia banatu du. Jaso ez duenak, Atez Ateko bulegora jo besterik ez du. 900 776 776 / atezate@usurbil.eus 09:00-14:30 (astelehenetik ostiralera).

### Irailaren 12an, 1958koen kinto bazkaria

Irailaren 12an, larunbatez bilduko dira bazkaltzeko 14:00etan, Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik egongo da, irailaren 7ra arte. 40 euroko ordainketa egin behar da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 31 1400029532. "Animatu neska-mutilak!".

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Maialen Unanue**

# Miopiak jota

Beste behin esan nuen bezala, asko poztu nintzen azken hauteskundeetan, hainbeste desiratutako aldaketa egi bihurtzeko zifrak lortu baitziren. Egia da azken urteetan ikurriña Sanferminetako txupinazoan presente egoteko herritarren trikimailuek beti piztu didatela jakinmina (eta barrea, poza, plazara sartzea lortu ostean). Ezin ahaztuko dugu inoiz iazko arrantzale bizardunen ikurriña erraldoi hura: nola mundua arnasik gabe bezala gelditu zen, txupinazoa 19 minutuz atzeratu ostean. Urteetako debekuaren ostean, beraz, ikurriña udaletxeko balkoian ikusteak bazuen erakargarritasuna. Zorionak, bide batez, Greziako bandera ere balkoiratzea proposatu zuenari.

Ikurriña ikusi beharraren ondorioz, festa-eromen horretan gertatutako gainontzekoa galtzeko aukera handia zen. Baina baten bat aurrez hausnarketa eginda joan zen txupinazora, eta eskerrak: Gari Garaialde argazkilaria izan zen horietako bat. Betaurreko moreak jantzi eta txupinazoaren, festaren, beroaren, eromenaren aitzakiapean gertatzen diren erasoak gorde nahi izan zituen grafikoki: hurrengo egunean, hilaren 7an, zazpi argazki igo zituen Zuzeu atarira.

Garaialderen argazkietan ez dut titi edo ipurdi biluzirik ikusi, azken urteetan bezala, baina horrek ez die larritasuna kentzen irudiei. Lehenengoan ardoz blai dagoen neska bat ageri da mutil baten sorbalden gainean: begietatik ardoa kentzen ari da neska, bizkarrean gora mutil baten eskua, irribarrez, neskari bularretakoa askatu asmoz. Ildo berean doa hurrengoa, non tipo batek bere kamiseta altxatzen duen, pareko neskari gauza bera egiteko eskatuz. Lehenengo irudi bera, baina atzetik hartua: oraingoan bizkarretik luzatzen den eskua ikusten da neskari ipurdia ukitu aurretik. Hurrengoan neska bat ikusten da bizkarrez, eta haren hatz bat, mehatxuz altxatua ondoan barrez dagoen tipoari, ipurdia ukitzeagatik kargu hartu ostean. Hurrengo bietan mutilen begiradak dira protagonista: batean kamixeta bustia duen neska bati begira, eta bigarrengoan neska askoz gazteagoak limurtzeko ahaleginean. Azkena da guztietan brutalena iruditu zaidana: neska (oso) gazte baten eskua heltzen ari da gizonezko baten eskua, neskaren bizkarretik, ez joateko eskatuz.

Oraindik ez dakit argazkiak edo azpiko iruzkinak diren brutalenak. Jakin nahiko nuke zenbatek pentsatu ote duten, argazki horiek ikusi ostean, “bah, ez da hainbesterako!”, “ze paranoikoak diren feministak!”, eta abar. Pare bat gauza baino ez ditut esango. Bat, zerbait ikusi ahal izateko, ikusi nahi izatea ezinbesteko baldintza dela. Eta bi, ez dela Iruñeraino joan behar emakumeen aurkako eraso eta jarrerak ikusteko.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi

## Ika-Mika

# Haize-makinak

Ez dira eraginkorrak, garbitzen dutena baino gehiago zikintzen dute eta, gainera, osasunerako kaltegarriak dira!

Kale-garbitzaileen haize-makinek kaleetako karkaxak, zakur kakak, gonbitoak, eta, kaleko edozer zikinkeria altxatzen dute, eta gero, arnastuz gure gorputzean barneratzen dugu.

Altxatzen duten hautsa arnasten dugu. Haize-makinek airean sortutako hondakinek partikulen kutsaduran eragiten dute: hauts eta ke partikulak airean geratzen dira eta arnastu egiten ditugu, arnasketa sistemaren eta biriken kaltean.

Autoek ihes-hodietatik botatzen duten poluzioaren zati bat (karbono dioxidoa, besteak beste) kaleko lurrean geratzen da partikula toxiko moduan. Eta haize-makinek partikula toxiko hauek berriz airera altxatzen dituzte, eta guk arnastuz, gure biriketara irits daitezke.

Haize-makinak erabiltzerakoan, herritarrok ez daukagu egileek gomendatzen dituzten aholkuak betetzerik: 1) Erabil itzazu belarrietarako eta aurpegirako (edo betaurreko) babesak. 2) Kontuz: makinak objektuak gora bultza ditzake. 3) Manten itzazu lantokitik urrun pertsonak eta animaliak. 4) Ez ezazu inoiz putz egin beste inorenganantz, jaurtikitako objektuek abiadura handia har baitezakete.

Honi guztiari zarata gehitu behar diogu: sekulako kutsadura akustikoa sortzen du, 100 dezibeliotik gorakoa. Hau ere osasunerako kaltegarria, jakina.

Ez da eraginkorra eta hautsa astintzen du!

Ken dezagun guztion artean garbitze sistema hau!

Gure osasuna garrantzitsuagoa da!

Sina dezagun herriko tabernetan eta dendetan! Eroski, Bordatxo, Laurok, Antxeta, Belar-denda, Tabako-denda.

Esan EZ haize-makinei!

**Iker Arteaga**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 20.

# #Gattunk DVD-a 5 eurotan jarri da salgai

Gogoan izango duzue, gazaroa amaieran Oiardo Kiroldegian ospatu zen #Kilometroak15-en lelo eta irudiaren aurkezpen ikuskizun hunkigarria. Edota udaberrian ezagutzera eman eta uda ostean, urriaren 4ko jaialdia iragartzeko sarritan entzun eta ikusiko dugun bideoklipa. Edo, Udarregi Ikastolaren sorrerari buruz, hainbat herritarren lekukotzetan oinarrituta ekainean estreinatu zen dokumentala.



Gattunk dendan, Lizardin eta Lauroken ipini da DVD-a salgai.

"Udarregi Ikastolaren sorrerari buruzko dokumentala, bideoklipa eta aurkezpen ikuskizuneko bideoa dira 2015ean bideoan jaso ditugun zenbait lan", #Kilometroak15 lan taldekoek ohartarazi dutenez.

### "Oroigarri gisa gordetzeko"

Une hunkigarriez beteriko lekukotzak dira denak, denborarekin balioa mantenduko dutenak: "zalantzarik gabe. DVD batean bildu ditugu, oroigarri gisa gordetzeko".

### #Gattunk DVDa

- DVDa: aurkezpen ikuskizuna, bideoklipa eta dokumentala.
- Ekoizlea: #Kilometroak15.
- Prezioa: 5 euro.
- Gattunk dendan, Lizardi eta Laurok liburu dendatan salgai.

### Emakume baserritarren liburua, NOAUA!n eskuragarri

10 eurotan eskura dezakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan, "Lurra, Lana, Izana. Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak" liburua, DVD-arekin batera.

### DVDa doan banatu da

Martxoaren 8an Sutegin estreinatu zen dokumentalaren DVD-a doan banatu berri du Udalak etxeetan. Ikusgai duzue baita youtube atarian.




DVDa doan banatu da. Liburua ordea, salgai ipini da. NOAUA!n duzue eskuragarri.

## Ika-Mika

# Erabakitzeko eskubideaz ETB2ko "El dilema" saioan

Ekainaren 21erako Gure Esku Dagok antolaturiko egunaren aitzakian Etb2-ko "El dilema" saioan , "Jostunak" dokumentalaren ondoren mahai inguru bat antolatu zuten. Mahai ingurua hasi orduko, dokumentalean Floren Aoizek eginiko galderari heldu zion saioko aurkezleak: Nork erabakiko du zer? Abiapuntu hortatik hasita, eztabaidan hasi ziren gonbidatuak, bakoitza bere argudioekin. Ez gara gu orain eztabaidaren mamian sartuko. Han aipatu ziren kontzeptu batzuez iritzia eman nahi dugu soilik. Geure kezka NOAUA!-ko irakurleekin elkarbanatzea dugu helburu. Eta Ika-mika honetan beste norbaitek parte hartu nahiko balu, ba mundial!

1.) Eskubidea koloniek dute: "...erabakitzeko eskubidea, juridikoki ez da eskubide bat. Nazioarteko legedian gehienez ere autodeterminazio edo sezesio eskubidea dago onartua, eta hori ere kolonien kasuan soilik..."

Ez da, telebistako mahai inguru batean, euskaldunon askatasunaren aurkakoei argudio bera entzun izan diegun lehen aldia. Eta beraien ikuspuntutik normala iruditzen zaigu. Abertzaleen edo erabakitzeko eskubidearen aldekoek horri erantzunik ez emateak harritu eta amorratu egiten gaitu ordea. Zer da ba Euskal Herria, zer da ba Nafarroa alegia, kolonia bat ez bada? Azken urteetan hainbat jendek eginiko lan eskergari esker, Konkista bat izan zela Yolanda Barcinak berak ere ukatu ezin duen garai hauetan, nola da posible inork baieztapen horri aurre ez egitea telebistako eztabaida batean. Nahiz eta herri bezala, geure etorkizuna erabakitzeko, borondatea, herriaren nahia, eta abar nahikoa argudio izan daitezkeen, nazioarteko legediaren aurrean indarra izan dezakeen argumentazioa ez dugu ba bazterrean utziko ala? Herri burujabe ginen, armen indarrez konkistatu eta kolonizatu egin gaituzte. Bizi dugun gatazka politikoan kontuan hartzeko datua izango da ba detailetxo hau ez?

2.) Ez independentistak?? Telebistako eztabaidan aipatu zen eta gaur bertan ere, Gure Esku Dagoren ekimenaren biharamunean, Gemma Zabaletak, PSOEko kideak Berrian aipatzen du: ...erabakitzeko eskubidea independentistek bere egiten duten moduan, berdin egin dezaketela bera bezala independentista ez direnek.

Nor da independentziaren aurkakoa ba? Nor da askatasunaren aurkakoa? Nor da burujabetzaren aurkakoa? Sinonimoak dira guretzat 3 hitz horiek... Horrelakorik ez dagoela esatera ausartuko gara. Estatu batuarrak independentistak dira; uztailaren 4an ospatzen dute. Espainolak ere independentistak dira. Nongotar sentitzen zaren da kontua. Estatua dutenek beraien estatuak burujabe nahi dituzte. Ez dugu uste Gemma Zabaleta Espainiaren independentziaren aurkakoa denik.

Gemma Zabaleta ez da euskal independentista, espainiar independentista da.

Besterik gabe, kontzeptuak argitze aldera. Ondo izan!

**Idatziaren sinatzaileak: Jexux Agirresarobe, Haritz Harreguy, Oxkar Santamaria eta Aihert Goia.**

# Herriko jaien balorazioa egiteko bilera deitu dute



Uztailaren 1etik 5era ospatu ziren jaiak ebaluatzeko bilera deitu du Jai Batzordeak, datorren astelehenerako, uztailaren 20rako, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean. Bilera irekia denez, herritar nahiz eragileak gonbidatuak daude hitzordura.

## Santueneko bi udal etxebizitzek maizter gabe jarraituko dute

Uztailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez berri eman duenez, Usurbilgo Udalak Santuenean jabetzan dituen bi etxebizitzen enkantea desertu deklaratzea erabaki du. Gogoan izan, ekainaren 22ra arteko epea zuten interesdunek, eskaintzak aurkezteko. Bi etxebizitzon "irteera prezioa hobetzen duten eskaintza oneenei izendatuko zaizkio etxebizitzak" iragarria zuen Udalak.



**Enkantea desertu deklaratzea erabaki du Udalak.**

### Uztailaren 31n ez da bus-taxi zerbitzurik izango

Jai egunetan ez da zerbitzurik izaten. Beraz, uztailaren 31n ostirala ez da bus-taxia ibiliko. Gainontzean, uztailean soilik goizez funtzionatuko du bus-taxiak: 07:30etik 08:30era, 10:30etik 11:30era eta 13:00etik 14:00etarako zerbitzuak burutuko ditu. Arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 tarteetan ez da zerbitzurik izango.

Abuztuan zerbitzua eten egingo da hilabete osoan.

**Irailean, ohiko ordutegian**

Bus-taxi zerbitzuak bere horretan jarraituko du datorren ikasturtean. Irailaren 1ean asteartea, goiz eta arratsaldeko ohiko ordutegia berreskuratuko du bus-taxi zerbitzuak.

### Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko garaia

Uztailaren erdialdera arte dago izen emateko epea. Bi espezialitate hauek egiteko aukera eskaintzen dute Atallu industriagunean:

- Sukaldari zerbitzari langilea.
- Ile-apainketa laguntzailea.

**15-17 urte artekoentzat**

Ikasketa prozesu honen baitan, enpresetan egin ohi diren lan praktikak txertatzen dituzte. 15-17 urte arteko gazteei zuzenduriko heziketa ziklo hau gainditzen duenak, Erdi Mailako zikloetarako sarbide zuzena du. Egokia berezi-ki lanbide bat ikasi eta lan munduan murgildu nahi dutenentzat. Argibide gehiago:
943 360 465 / lhi@usurbil.eus









# Zubietako festak, begibistan

Uztailaren 24tik 31ra ospatuko diren festen baitan, hainbat otordu antolatu ditu Jai Batzordeak. Hitzorduotarako txartelak aurrez eskuratu behar dira. Uztailaren 24ko herri afarirako eta hilaren 31ko zikiro janerako txartelak salgai daude jada Alamandegi jatetxean.

Honatx prezioak eta txartelak eskuratzeko epe muga. Epeak errespetatzea eskatzen dute Jai Batzordetik:

- Herri afarikoak: uztailaren 19ra arte. Helduenak 18 eurotan, haurrenak 10 eurotan.
- Zikiro janekoak: uztailaren 25era arte. Helduenak 22 eurotan, haurrenak 14 eurotan.

## Jubilatuen bazkaria, Barazarren

Bestalde, uztailaren 26an ospatuko den Jubilatuen Euneko bazkaria Barazar jatetxean izango da. Bertaratu nahi duenak, uztailaren 23a baino lehen deitu dezala, 663 584 130 telefono zenbakira (Maialen).




Santio Egunean, Patxi eta Konpainiarekin dantzaldia.

TXARTELAK

*"Herri afariko zein zikiro janeko txartelak aldez aurretik eskuratzeko deia egin dute antolatzaileek"*

Izen emateei loturiko deialdi gehiago. Uztailaren 30ean 19:00etan, 16 urtetik gorakoentzako gazte eta ez hain gazteen artean ospatuko den futbito partidan apuntatzeko aukera dago baita txosnetan, uztailaren 26ra arte.

Hona hemen Zubietako festen baitan lehen asteburkurako iragarri diren ekitaldiak (egitarau osoa noaua.eus atarian eta datorren astekarian):

## Uztailak 24, ostirala

18:00 Haur eta gazteen Joko Garbi erakustaldia.
19:00 Jaien hasiera txupinazo eta II. Zubietarron argazki herrikoi erraldoiarekin. Arratsaldean, mozorro festa eta "fotokola".
21:00 Herri afaria. Ondoren, Kantu saioa eta Fan&Go taldearekin erromeria.

## Uztailak 25, larunbata: Santio Eguna

9:00 Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
10:30 Meza Nagusia. Ondoren, Hamaiketakoa eta soka dantza.
17:30 Gorritiren Showa. Ondoren, Buruhandiak. Jarraian, Patxi Ta Konpaina taldearekin dantzaldia.
23:00 Zezenaren Taldearen kontzertua, Ipar Euskal Herritik zuzenean.
Segidan, Laiotz taldearekin erromeria goizaldera arte.

## Uztailak 26, igandea: Jubilatuen Eguna

09:30 Meza.
12:00 Iparraldeko jokoen erakustaldia: lasto altxatzea, ingude altxatzea, lasto jaurtiketa…
14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.
17:30 Dantzaldi musikala. Ondoren, Buruhandiak.
19:00 Sardin eta piper jana.
22:30 Herri Antzerkia.

# Kolokan izan dira San Estebanak, baina ospakizunik izango da azkenean

Kolokan egon dira Urdaiagako festak, bertan behera geratzeko arriskuan Jai Batzordeak udaberri partean berri eman zuenez. Festen etorkizunaz hausnartzeko tartea ere hartu nahi izan zuten, baina guztiaren gainetik bazen ibilbide luzea duten jaiei segida emateko gogoa. Eta azkenean bai, aurten ere Urdaiagan jai izango dute abuztuaren 1etik 3ra. Haurren Egunarekin hasiko dituzte festak, oilasko biltzaileenarekin segi eta San Esteban Egunez amaitu. Egitaraua www.noaua.eus atarian duzue ikusgai.



Abuztuaren 1ean, herri afariaren ondoren bertso saioa Amaia Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin bertsolariekin.

## Oporren itzulera goxatzeko, jai giroa Atxegalden

Ohi bezala, askorentzat oporren itzulera markatuko duen abuztuko azken asteburuan ospatuko dira Atxegaldeko jaiak; abuztuaren 28tik 30era. Haurrentzako jolas, afari, kontzertu eta txapelketa artean joango da 48 orduko etengabeko festa giroa. Egitarau zehatza datorren astekarian argitaratuko dugu.



Abuztuak 28-31, auzoko festak.

# Zumeta berriena, Zarauzko Merkatu Plazan

Zarauzko Merkatu Plazara hurbiltzen diren askorentzat, *Gernika* izango da lanik erakargarriena. Eta horien parte bilakatu diren eskulturak. Baina *Gernika* eta eskulturak bezain garrantzitsu dira besteak, usurbildar margolariak azken garai honetan margoturiko koadroak. "Guztiek oinarrian marrazki bera dute, baina emaitza bestelakoa da", Jose Luis Zumetak aditzera eman duenez.

■ Zarauzko Merkatu Plazako lehenbiziko solairuan.
■ Uztailaren 29ra arte ikusgai. 11:00-13:30 / 18:30-21:00.



**Egunero zabaltzen dute erakusketa, ordutegi honetan: 11:00-13:30 | 18:30-21:00 (Argazkiak, Joxe Luis Arrastoa).**

## "Toki honetarako propio egin dut aukeraketa"

Artea museotan edota erakusketa aretoetan ikustera ohituak gaude. Akaso hori da Zumetaren erakusketa berri honen ezaugarririk deigarriena: azoka-gune batean eskegi dituela bere lan berrienak. Leku publiko batean.

Erakusketa uztailaren lehenean zabaldu zen eta uztailaren 29ra bitarte egongo da ikusgai. Inaugurazioan, elkarrizketa eskaini zion Urola Kostako Hitzari. Eta adierazpen horietan, pozarren agertzen da margolaria erakustokiarekin: "gutxitan izaten dut aukera horrelako koadro handi bat erakusgai jartzeko. Zaila izaten da halako espazio zabal bat bilatzea, eta Zarautzen erakusketa egitea proposatu zidatenean, toki berezia zela iruditu zitzaidan".

*Gernika* koadroa izango da akaso deigarriena, handiena ere, hura delako. Baina Picassoren *Gernika*-n oinarritzen den koadro koloretsuak bidelagun berriak ditu orain: eskultura batzuk egin ditu hari laguntzeko.



**Koadro berriak ere ikusgai ipini ditu Zarauzko Merkatu Plazan.**

JOSE LUIS ZUMETA

***"Zaila izaten da halako espazio zabal bat topatzea, eta Zarautzen erakusketa egitea proposatu zidatenean, toki berezia zela iruditu zitzaidan"***

### Eskulturak, *Gernika* koadroaren parte

Eskultura horien figura txikiak eginak zeuzkan aurretik. Angel Saldimas lagunak *Gernika, Mihisetik pantailara* animaziozko film dokumentala egin zuen, "eta figura txiki horiek haren ekoizpenerako egin nituen, filmeko pertsonaia izateko", Jose Luis Zumetak Urola Kostako Hitzako kideei adierazi zienez.

Ondoren, figura horietan oinarrituz eskulturak egiten hasi zen: "pentsatu nuen figura horiek handiago egin nitzakeela, eskultura bihurtuta, aurrerantzean betiko koadroari laguntzeko. Orain, jada, dena bat da". Koadroa eta eskulturak gauza beraren parte direla.

### Koadro berriek marrazki bera dute abiapuntu

Esan dugu. Bestelako koadroak ere ipini ditu Zarauzko erakusketan ikusgai. "Iaz eta aurten egindakoak dira. Badira urte batzuk atzera egindakoak ere, baina nagusiki berriak dira, eta erakusketa honetarako propio egin dut aukeraketa". Horietako batzuk lehen aldiz erakutsi ditu.

Koadro berriek badute lotura euren artean. Urola Kostako Hitzan adierazi zuenez, "guztiak marrazki beretik abiatzen dira, baina aldaera ezberdinak egin ditut. Guztiek oinarrian marrazki bera dute, baina emaitza bestelakoa da. Nik anizkotasunak deitzen diet".

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua

NOAUA!ko **bazkide guztien artean** zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek, uztailaren 17an






Orioko Aisian 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT
+ zirkuitu termala+ Pentsio ERDIA

aisia ORIO






2 LAGUNENTZAKO afaria
Atxega Jauregian

atxega Jatetxea






2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

aisia ORIO

## noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

# Kilometroetan parte hartzeko Erronka

*Haurrentzako ekimenak izaten dira, guretzako ez hainbeste.* Sarri kontzertuak ikusi beste aukerarik ez dute izaten Kilometroak egunez, eta ondorioz, "gazte asko ez da joaten aspertu egiten delako", urriaren 4rako Erronka prestatzen ari den Udarregi Ikastolako ikasle taldearen esanetan.

Urte luzez hutsune bat sumatu dute ikastolen aldeko jaialdian, 12-18 urte arte inguruko gazteei zuzendutako ekimen eskaintza askorik ez dagoela. Kontzertuez gain, ezer gutxi gehiago aurki zezaketela Kilometroak egunaz gozatzeko. Musika taldeen emanaldiak ikusi eta entzutetik haratago, haien parte hartze zuzena sustatuko zuen "aisialdi eredu aktibo" bat falta izan zuten, 2013an Tolosan ospatu zen ediziora arte. Duela bi urteko jaialdian, harrera beroa izan zuen ekimen berri bat txertatu zuten antolatzaileek; Erronka delakoa. Taldeka, kirol proba batzuen bueltan, Gipuzkoako hainbat ikastoletako ikasleak lagun artean jolastuz Kilometroak eguna igarotzeko aukera eskaintzen dien ekimena. Iaz, Orion ospatu zen eta, Tolosakoaren ildo beretik, arrakastasua izan zen.

Hirugarrenez ospatuko da Erronka, datorren Kilometroak egunez Usurbilen. Ehunka gazte espero dira urriaren 4an udalerri honetan. 350 bat bai behintzat, antolatzaileen esanetan. Eta haiek ikustera etorriko diren senide eta lagunak gehiago izan daitezke noski. "Ia egun eguzkitsua izaten dugun", dio Erronkan parte hartzera animatu den Udarregi Ikastolako taldeak. Datu garrantzitsua. Antza, gainditu beharreko proben artean, ur jolasak baitituzte. Eta #Kilometroak15 ekimeneko gune gehienak ere ezin ahaztu, belardietan kokatuko dira.




**Iaz, Orion ospatu zen Kilometroak. Usurbildar gazte hauek Sarai Lizasorekin batera hartu zuten parte Erronkan.**

**ERRONKAREN FUNTZIOA**

***"Urte luzez hutsune bat sumatu dute Kilometroak jaian. 12-18 urte inguruko gazteei zuzendutako eskaintza askorik ez dagoela. Hutsune hori betetzera dator Erronka"***

## Amaiera bateratua

Erronka lau guneetara hedatuko da. Hauxe Usurbilgo ediziorako ekimena antolatzeaz arduratzen ari den batzordeak txertatu duen berrikuntzetako bat. Ekimena gune bakar batean ospatu beharrean, zirkuituko geldiune ia guztietara zabalduko dute. Goizez ospatuko dira probak eta final handia arratsaldez.

Orain arte puntazio altuena zuten lau taldeek baino ez zuten parte hartzen azken proba nagusian. Aurten aldiz, estreinakoz talde guztien arteko finala jokatuko da. Modu honetan, #Kilometroak15 ekimeneko beste hainbat eremutan bezala, inklusibitatea sustatu nahi da baita Erronkan ere. Final inklusiboa izango du, amaiera bateratua partaide guztiekin.

# Irailean bideo lehiaketa, eta urrian Erronka

**Ekainean:**
Adi-adi jokoan parte hartu dute.

**Irailean:**
Aurkezpen bideo lehiaketa.

**Urriaren 4an:**
■ 09:30 Harrera eta nikien banaketa ikastolako gunean.
■ 10:00 Talde bakoitzaren aurkezpena ikastolako gunean.
■ 11:00etatik aurrera probak:
-Agerreazpin: "Lasto fardoak".
-Harane futbol zelaian: "Globinkana".
-Udarregi Ikastolan: "Eskalagardoa".
-Atallun: "Sagar biltzen".
■ 13:45 Bazkaria Erronkarientzat Agerreazpin.
■ 14:00 Eguerdiko kontzertu nagusia.
■ 16:30 Erronkaren finala talde guztiekin.
■ Ondoren, sari banaketa.
■ 17:30 Eguneko kontzertu nagusia Atallun.
■ Erronka prestatzeko antolakuntza taldea: 80-100 bat lagun guztira.

**Informazio gehiago:**
erronka.eus
kilometroak.eus

# Sagar biltze inklusiboa

Argi denez, ikasleen partehartzea ahalik eta gehien zabaldu nahi izan dute. "Orain arte, ikastetxe bakoitzetik 8 erronkarik parte hartzen zuten. Aurten parte hartzea zabaldu dugu. Proba bakoitzean erronkari kopurua zortzikoa izan eta 3 proba burutuko dituztenez, ikastetxe bakoitzak gutxienez zortzi eta gehienez 24ko taldea aurkezteko aukera izan du", antolatzaileen esanetan.



Gazte hauek aurtengo Erronkan hartuko dute parte.

Iazko proba berdinak izango dituzte, "oso erakargarriak izan eta ondo funtzionatu izan baitute" antolatzaileek diotenez, baina gaitasun guztiak kontuan hartu nahi dituen, inklusibitatearen balorea guztiz txertatua duen proba berri bat ere sortu dute Usurbilgo ediziorako. "Sagar biltze proba, gure herriko nortasunari lotua. Gaitasun ezberdinez osaturiko zortzikote batek aurre egin beharko dio probari. Horietatik bi kideek itsututa burutu beharko dute proba, kide batek gurpildun aulkian, korrika egin dezakeen pertsona bat egongo da...", aurreratu dute.

## Egitarauan egoki josia

Erronkarientzat egun pasa antolatu dute urriaren 4an goizetik arratsaldera. Baina tarterik ere izango dute, nahi izanez gero kontzertuetara joateko noski. #Kilometroak15 ekimeneko egitaraua diseina–tzerakoan, Erronka ospatzen den ordu tarteetan kontzertu nagusiak antolatzea saihestu nahi izan dute. Honenbestez, erronkariek eta ekimena ikustera doazen gazte guztiek, bai Erronkaz eta kontzertuez ere gozatu ahalko dute urriaren 4an. Denetarako astia izango dute beraz.

"Dena oso kontuan hartu da. Erronkariak parte hartzen ari direnean ez da izango kontzerturik eta kontzertuak daudenean ez da izango Erronkarik", ohartarazi dute antolatzaileek.

# Talde lan handia dago Erronkaren atzean

Berrikuntza gehiago. Aurten, Erronka Kilometroak eguna baino dezente lehenago abiatu dute. Urriaren 4rako puntuagarria izango den "Adi-adi" lehiaketan parte hartu zuten Erronkariek ekainean. 6 bideo arreta handiz ikusi eta entzun, eta bideo hauen gaineko galderei erantzutean oinarritzen zen jolasa. Zenbat eta lehenago erantzun galderari, orduan eta puntuazio altuagoa lortzeko aukera zuten.



2013ko Kilometroak jaian hasi ziren Erronka antolatzen.

Irailean izango dute bigarren proba; aurkezpen bideo lehiaketa. "Talde erronkari bakoitzak, 3 minutuz azpiko aurkezpen bideo bat diseinatu, grabatu eta editatu beharko du", adierazi dute antolatzaileek. Emaitzak web orrialde batean ikusgai jarri eta lehiatuko dira. Iraileko proba ere, ekainekoa bezala, urriaren 4ko Erronka egun handirako puntuagarria izango da.

Ehunka gazte mugituko dituen ekimen erraldoia presta–tzeko lanak aurreratuak dituzte Erronka batzordekoek, diotenez, "garaiz eta azkar mugitu gara" eta. Guztira, 80-100 bat laguneko taldea osatuko dute urriaren 4rako. Kanpotik begiratuta ez dirudien arren, azpi talde bat baino gehiago ditu aipatu batzordeak. Erronkan parte hartuko duten 21 taldeen gida lanak egiteko talde bat izango dute, partaideei bazkaria zerbitzatzeko beste talde bat, probako diseinu eta azpiegiturak egokitzeaz arduratuko den, "denetik egiten dakien" beste laguntzaile multzo bat, proba bakoitzeko arduradun talde bana, web orria elikatzeko boluntarioak... Laguntzaile sare zabala beharko du baita Erronkak.

Talde lana beharrezkoa izango da antolakuntzan, baita Erronkarien artean ere. Udarregi Ikastolako taldetik dioten moduan, "talde lanean probak hobeto ateratzen dira". Kide bakoitzak gainera, gaitasun ezberdinak aportatzeko aukera du. Proba egin dute jada. Ekainaren 7ko Ikastola Egunean, goizez ospatu ziren jokoetan, Erronkako finala proba moduan antolatu zuten.

# DVDa SALGAI

· Ikastolaren soreraren dokumentala
· Bideoklipa
· Aurkezpen ikuskizuna

5€

*Lauroken, Lizardin eta Gattunk dendan




g!tunk
KILOMETROAK 2015
USURBIL URRIAK 4

ikastolenelkartea
Udarregi
IKASTOLA



Onintza Garcia Udabe

# Bertso berriak Andatzperi jarriak

1-
Garaiak aldatu dira baina
ez digu gain hartu pozak,
gizarte honek jartzen baititu
muga latz eta zorrotzak (bis)
lehen ere isilarazi ziren
emakumeon ahotsak
orain oihuka hasiak zaizkit
nire barreneko hotsak
zorroztuko ditut hortzak
eta gaurkoan hitz egingo det
albora utzita lotsak. (bis)

2-
Zarauztik hona etorri nintzen
nahikoa aldarte alaiz,
animo, neska, herri honetan
oso pozik biziko haiz; (bis)
jende jatorra, leku politak,
ezagutu ditzaken maiz
bizi berri bat hemen hasteko
oraindikan habil garaiz.
Baina hizketan hainbat gaiz
herri hontako gauza batzukin
kezkatuta geratu naiz. (bis)

3-
Nahiz ta itxuraz guztiok gauden
berdintasunaren alde
Andatzpen gertatuak utzi nau
amorruz eta herabe (bis)
bazkidetza alabari_uztea
batek egin zuen galde
eztabaida piztu zuen eta
sortu ziren hainbat talde
erantzunik ez halare
eta geroztik herritar batzuk
hemen gose greban gaude (bis)

4-
Estatutoak hartu nituen
ta jarri nintzen begira
bazkide izateko baldintzak
oso argi daude, tira (bis)
seigarren atalak dioenak
du niretzako dizdira:
ezin da pertsonarik baztertu
ez sexuaren harira
beraz epaia argi da.
Elkarte hortan dabiltzan batzuk
zeren beldur ote dira? (bis)

5-
Aspalditikan mundu hobe bat
hasiak gara gorpuzten
nahiz ta batzutan gure aurrean
ametsak diren zapuzten. (bis)
Txikitatik berdinak garela
nahiz diguten erakusten
gero neskei eskubide berak
ez dizkigutenez uzten
nazkatua naiz ikusten
nolatan oraindikan legeak
gizonek jartzen dituzten. (bis)

6-
Historikoki izan ditugu
ehundaka tradizio
denborarekin batzuk bihurtu
direnak hemen fikzio (bis)
lehen gizonentzat soilik ziren
zenbait lan ta ofizio
bai tabernako giroa edo
beste hainbat afizio.
Orain zer dugun desio?
Diskriminariorikan gabe
izan gaitezen sozio. (bis)

7-
Oraindikan ez dakigu nola
amaituko den auzia
baina orain artekoak utzi
digu zapore gazia (bis)
egoera honek barrenean
eragiten dit antsia
gure begiradaren aurrean
baitago injustizia.
Hau ez denez gutizia
berdintasuna da Elkartean
eskatzen dugun guzia (bis)

8-
Nahiz ta batzutan ikusten dudan
den-dena beltz eta ilun
gauza guztiak ez dira_izaten
horren lehor eta zurrun; (bis)
parekidetasunaren alde
ari dira hainbat lagun
herri honetan lanean gogoz
aspalditik dira jardun
izan gaua ala egun
gure inguruko_injustiziak
salatzen jarrai dezagun. (bis)

*Doinua: Arratsaldeon ta aupa zuek*

Egilearen oharra: “Bertso-sorta hau Santixabel Bertsopaper Lehiaketara aurkeztu nuen, ez irabazteko asmoarekin, plazaratzeko asmoarekin baizik. Sorta ez zen saritua izan eta hortaz, beste bide batzuetatik iritsi nahi nuke jendearengana”.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Bihotz biriken suspertzearen inguruko ikastaro berria, DYAren eskutik

Ikastaro laburra izango da, bi egunekoa, uztailaren 29an eta 30ean, DYAk Munalurra 22an duen egoitzan, 18:30-21:00 artean.

"Ikastaro teoriko-praktiko honekin bihotz biriken geldialdia identifikatzen, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta KDA (Kanpoko desfribilagailu erdi- automatikoak) erabiltzen ikasiko da. Ezaguera errazak, eskuragarriak eta erabilgarritasun handikoak, bereziki bere lana pertsona ugari dagoen guneetan burutzen dutenentzat, baita arrisku lanbideetan, gaixoekin, orden publikoko zerbitzuetan eta segurtasun-gorputzetan, Babes Zibileko talde, suhiltzaile, osasun sorospeneko eta erreskate taldeentzat…", antolatzaileen esanetan.



Ikastaroa Usurbilen eskainiko dute, uztailaren 29an eta 30ean.

Ikastaroa interesa duen edonori zuzendua dago, ez da aldez aurretikako ezaguerarik behar. Saioak, DYA Gipuzkoako Unibertsitateko Erizain Diplomatuek bideratuko dituzte. Matrikula prezioa, 90 euro. Izena emateko deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira edo idatzi irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidera.

### Plaza kopurua, mugatua

Plaza mugatuak. "Proba teoriko-praktikoak gaindituz gero, ikastaroa gainditu dela ziurtatzen duen ziurtagiria" jasotzeko aukera eskaintzen dute.

# 325etik 314ra jaitsi zen langabetu kopurua ekainean

Uda partean ohi denez, azken hilabeteotako joerari eutsi eta ekainean ere langabeziak beherantz egin du Usurbilen. 325etik 314ra murriztu da lanik gabeko herritar kopurua, Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera. Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere behera. Langabetuaren profilean ordea aldaketarik ez. Emakume eta gizonezkoen arteko desorekak bere horretan segitzen du. 170 emakume langabetu, 144 gizonezko langabetu zenbatu direnean. Eta kontratazioari begira, 204 gizonezko kontratatu dira, 166 emakumezko. Hori bai, erregistratu diren 370 kontratutik, ia denak, 348 aldi baterako hitzartu dira ekainean ere. 266 zerbitzuen sektorean, beste 100 industrian.

### NOAUA!ko bazkidetzaren kobraketa

Asteazken honetan, uztailaren 15ean hasiko gara kobratzen, NOAUA!ko bazkidetza. Kuota, pasa den urteetan bezala 36 eurotakoa izango da. Beraz, 36 euro kobratuko zaizkizu datozen egunetan. Zuri dagokizunean, kutxa bidez kobraketa egiteko baimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Hauxe da gure kontu korronteko zenbakia: Rural Kutxa: 3008 0259 11 3086496928.

**Uztailaren 17an zozketa mundiala**

NOAUA!ko bazkide bazara, adi, beste hiru zozketa egingo ditugu uztailaren 17an. Zorte on!

- Bi lagunentzako beste zirkuitu termala, Orioko Aisia hotelean.
- Bi lagunentzako afaria Atxega jauregian.
- Bi lagunentzako gau bat Orioko Aisian, pentsio erdian, eta zirkuitu termala.

**Bazkide egin eta zozketa hauetan partehartu**

Oraindik bazkide ez zaretenok, zozketa honetan partehartzeko aukera duzue. Baina lehenbizi bazkide egin beharra duzu. Bazkidetza orria osatu, opari ederra jasoko duzu eta hilaren 17ko zozketa mundialean hartuko duzu parte.



Aisia hoteleko zirkuitu termala.




ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox. altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Garazi Iturralde, Kayak Surf txapelketatik bueltan: “Euskaldunok maila oso ona dugu munduan”



**Ezkerrean eserita, Xabi Olano. Erdialdean eta zutik, Garazi Iturralde. Biak lehen postuetatik gertu ibili dira finaletan.**

Kayak Surf-eko Munduko Txapelketan, marka ederrak ondu ditu Euskal Selezioak. Taldeka zein banaka, onenen artean segitzen dute euskal ordezkariek. Tartean dira herriko bi kirolari: Xabi Olano eta Garazi Iturralde. Txapelketatik bueltan, adierazpen hauek egin dizkigu Garazi Iturraldek.

Pozarren itzuli da Garazi Iturralde. Ekaina amaieran abiatu ziren Pantinera, Galiziara. “Eguraldi bikaina egiten zuen eta olatuak ezin hobeak ziren. Lehen bi egunetan entrenamendu saioak izan genituen eta igandean hasi zen txapelketa, inaugurazioarekin eta partaideen aurkezpenarekin; Irlanda, Brasil, Ipar Irlanda, Ingalaterra, Gales, Australia, EEUU west coast, Eskozia, Portugal, Costa Rica... eta nola ez Euskadi”.

## Taldeka nahiz banaka

Ekainaren 29an hasi ziren lehian, bai taldeka eta baita banakako txapelketan. Lasterketa egunak aurrera egin ahala, sailkapeneko goiko postuak argitzen hasi ziren. “Uztailaren 4an ospatu zen taldeko finalerako sailkatu ginen Irlanda, Ingalaterra eta Galesekin batera. Larunbat oso gogorra izan zen selekzioko kide guztientzat. Ingalaterrarekin oso berdinduak ibili ginen, baina tentsioari aurre egin eta talde kide guztiei esker irabazle ginen eguna amaitzerako”, Iturraldek adierazi digunez.

Ez zuten ospatzeko tarte handirik izan, “hurrengo egunean selekzioko kide gehienok banakako finaletarako sailkatuta geundelako. Beraz, uztailaren 5ean berriz ere goiz jaiki eta hondartzara. Tentsio gehiena egun honetan egon zen, emozio asko zegoen, bakoitzaren irabazi nahia. Partaideen familiarteko ugari izan zen bertan eta euskal giroa nabaria zen, ikurrina besterik ez zegoen hondartzan, irabazi nahia zegoen”.

## Xabi Olano, finalean laugarren

Xabi Olano usurbildarra Open IC kategoriako finalean izan zen eta “laugarren postua lortu zuen borroka handi eta estu baten ondoren. Nik berriz, Ladies HP finala izan nuen eta orain bi urteko mundialeko marka bera lortu nuen, brontzezko dominarekin konformatu behar izan nuen”. Garazi Iturraldek aipatu digunez, finalean “olatuak ez ziren handiak izan eta beraz lehia oso estua izan zen”.

## 15 domina lortu ditu Euskal Selekzioak

Euskal Selekzioak, 15 domina lortu ditu guztira: 5 urrezko, 5 zilarrezko eta 5 brontzezko. “Honekin ikus daiteke euskaldunok maila oso ona dugula munduan”, hala aitortu digu zubietar kirolariak.

Bide batez, Garazi Iturraldek eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile guztiei: “Cadenas Vicinay, Laboral Kutxa, RCNSS, Euskal Kayak federazioa, animoak bidali dizkidazuen guztiei, selekzioko kide guztiei, familiari eta beti eduki ditudan entrenatzaileei (Urko Otxoa eta Edu Etxeberria), eta esan ere hauek erakutsitako guztiari esker dudala orain dudan maila”.



**Andatzakoak, giro ederrean.** Aurreko asteburuan, 34 mendizale batu ziren Hiru Erregen Mahaia eta Anie (argazkikoa) mendietara eginiko ibilaldian. Argazki gehiago andatza.com web orrian topatuko dituzue.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

URPI Leihoak
urpileihoak@gmail.com
943 50 80 95 · 688 81 93 33
nagusia 10 (atzek) USURBIL

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Altzariekin. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezkero garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Pisua alokatzen da kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Altzariekin. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Beheko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Atxegalden etxe bat, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, estudioa, argitsua, sartzeko prest, berogailu zentralarekin, 670 410 273

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txikin. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrenea 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Iraileitik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

## Heriotzak

**Salustiano Traba Lopez**
60 urterekin hil da, Galizian





**Zorionak Eñaut!** Uztailaren 13an zenbat urte bete dituzula? 8 urte? 9? Ez... dagoeneko 10! Ondo pasa genuen eta opari asko jaso zenituen baietz? Muxu handi bat zure familiaren partez.



**Zorionak Noa!** Konturatzerako lehen urtebetetzea ere iritsi da uztailak 15ean. Ondo ondo pasa eta pozik ospatuko dugu.



**Zorionak hirukote!** Uda honetan 10 urte beteko dituzue! Familia eta lagun guztien partez, zorionak!



**Zorionak Eneko!** Uztailaren 11n zortzi urte bete dituzu eta baita ederki ospatu ere, horren alai eta jator izaten jarraitu Keko!! Muxuak etxekoen partez.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

**BESTELAKOAK**

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Geltokiaren ondoan "skate" egiteko patinete bat aurkitu dut. Galdu baduzu deitu 943 362 088.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohe bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Oa botika | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Uztailak 16-uztailak 26

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 16 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 17 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 18 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 19 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Astelehena** | 20 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 21 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Asteazkena** | 22 | RODRIGUEZ | Kale Nagusia 42. Lasarte |
| **Osteguna** | 23 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 24 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 25 | RODRIGUEZ | Kale Nagusia 42. Lasarte |
| **Igandea** | 26 | RODRIGUEZ | Kale Nagusia 42. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

# Agenda uztaila

## 16 osteguna

- **"Laboraren uztaila". Mara bakarlariaren emanaldia.** 21:30ean Mikel Laboa plazan.
- **Zarauzko hondartzara DBH1 taldekoekin.** Antolatzailea: Gaztelekua.

## 18 larunbata

- **Aitziber Bengoetxearen erakusketa Artzabalen.**

## 19 igandea

- **Aitziber Bengoetxearen erakusketa Artzabalen.**

# Mara bakarlariaren kontzertua

Igor Arzuaga dago proiektu honen atzean, Exkixu talde arrakastatsuan eta Mikel Urdangarinen lehen diskoetan parte hartu zuen, harik eta bakarkako kantu egile ibilbideari ekin zion arte. Orain arte bi disko kaleratu ditu bere izenpean ('Argi izpi bat' eta 'Smog', biak Gaztelupeko Hotsak-ekin) eta beste bi ('Lagun eroa' eta 'Unibertsoa gu') Mara izenpean, bere kantuak interpretatzeko Arzuagak sortutako 'pertsonaia' edo alter egoa.

Esan daiteke Arzuagak bere ahots propio aurkitu duela urte hauetan zehar. Horrez gain, instrumentu bat baino gehiago menperatzen dituen musikaria da: pianoa, gitarra, soinu txikia, akordeoia, aho-soinua…

Azken garaian Luis Vil musikariarekin lan egiten du eta elkarrekin kaleratu dute 'Mara-Mara' izeneko lana. Saio honetan aurkezteke dituen Laboaren bertsio batzuk joko ditu, bere abestiekin tartekatuz.



Mikel Laboaren bertsio batzuk joko ditu Igor Arzuagak, Mara ezizenez arituko den bakarlariak.

**Uztailak 16, osteguna**

- Mikel Laboa plazan, 21:30ean.

# Aitziber Bengoetxearen erakusketa Artzabalen

Artista ondarrutarraren margolanak ikusgai, abuztu amaierara arte. Ondarrutarrak erakusketa bat egiten duen hirugarren aldia da. Txikitatik gustatu izan zaio eskulanak egitea, baina dekorazio ikasketak burutu zituenean hasi zitzaion margotzeko benetako grina. Lagun batek bultzatu zuen bere margolanak erakustera eta oso gustura dabil. Bere margolan koloretsuak, "kolore bizidunak" naturan eta itsasoan inspiratzen dira, batik bat. Espiralak, olatuak, arrainak, loreak… denetarik aurkituko du Artzabal jatetxera joaten den bisitariak.

## Datozenak

### Uztailaren 23an, Peru Galbeteren emanaldia

Peru Galbetek estreinakoz joko du Usurbilen. "3 urtez bere ukelelearekin etxean olio ozpinetan ontzen edukitako abesti melankolikoak eskainiko ditu", gaztetxekoek aditzera eman dutenez. 21:30ean, Mikel Laboa plazan.

### Uztailaren 24an aterako da azken astekaria

Azken aurreko astekaria duzue honakoa. Azkena, datorren uztailaren 24koa izango da. Ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, helarazi uztailaren 20a baino lehen, erredakzioa@noaua.eus helbidera. Ekarri bestela NOAUA!ko egoitzara. Argibideetarako hor duzue baita 943 360 321 telefono zenbakia. Abuztuan zehar astekaririk ez da izango. Opor osteko lehen NOAUA!, irailaren 11n.

### Liburutegia zabalik udan

- Udako ordutegia: Ekainaren 29tik Irailaren 4ra. Astelehenetik Ostiralera, 9:30etik 14:00etara.
- Inbentarioa: Abuztuaren 4tik 10era. Liburutegia itxita egongo da.
- Maileguak itzultzeko buzoia: Liburutegia itxita dagoenean.
- Harremanetarako: 943360692; mezuak: biblioteka@usurbil.eus; twitter (mezu pribatuak): @usurbib








Txirinbolo
Txirinbolo
Txirinbolo
jostailu denda
Txirinbolo
Etxebeste Kalea, 15
943 37 75 96
Usurbil


BOX Alokairua
3 igogailu + erreminta guztiak
Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...
Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak
ORDU ERDIA : 10€ Ondorengo minutuak : 0,35€
- 2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!
Eta nahi izanez gero laguntza !!
Olio, balazten, eta abar en zerbitzua
GURPILAK PREZIO ONEAN!
666 539 269
Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil


erredakzioa@noaua.eus
www.noaua.eus
Laster oporretara goaz
Uztailaren 24ean kaleratuko dugu ikasturte honetako azken NOAUA! astekaria
Irailaren 11an argitaratuko dugu hurrena
Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat ipini nahi baduzu, gogoan izan beranduenez uztailaren 20an ekarri edo bidali beharko duzula.


Patri
Patrienea
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361
kale nagusia 14. 20170 usurbil



*Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)*



## TALASOTERAPIA ORIOKO AISIAN...

**· Itsas ura modu terapeutikoan erabilia.**
**Bere ezaugarriak, lokatza, algak eta gatzak diren elementuei batua, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute.**
**Abantailak oso handiak dira, analgesiko ondorioa nabarmenduz, min orokorra eta gorputzaren zonalde zehatzetan mina murrizteagatik.**

**· Eguneko sarrerak**

**· Hilabeteko bonuak**

**· HOTELAREKIN: Asteburuko eta gau bateko eskeintzak ( gaua, afaria...), talaso +MARISKADA+ gaua ...**

aisia
ORIO





*Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com*